



Gardentasunaren egoera

**PUBLIZITATE AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO
SARBIDEAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO
TXOSTENA - 2023KO EKITALDIA
VITORIA-GASTEIZKO UDALA**

Gardentasunaren eta Edukien Atala – 2023ko maiatza



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Erakundeari, antolakuntzari eta plangintzari buruzko informazioa
Arlo juridikoko eta araudien arloko informazioa
Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa
Langileei buruzko informazioa
Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa
Beste zenbait alderdi
Informazio publikoa eskuratzea
Ondorioak

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikularen ildotik, **publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren aurreko ekitaldiko betetze-mailari buruzko txostena** egin behar du Udalak, urteko lehen hiruhilekoan.

Udalaren publikitate aktiboaren xede diren **52 informazio-item identifikatzen dira** txosten honetan, gardentasunaren arloan indarrean dagoen lege-esparrua aintzat harturik. Gainera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzearen eta gardentasun-atariaren — www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna— inguruko estatistikak jasotzen dira.

Erakundeari, antolakuntzari eta plangintzari buruzko informazioa

Epigrafe honetan **15 informazio-item** bildu ditugu, erakundeari, gobernu-organoei, hautetsiei, konfiantzazkoei eta kudeaketaren plangintzari buruzko informazioarekin zerikusia dutenak.

93%

14/15 argitaratuta

7%

1/15 argitaratu gabe

2023-2027 agintaldiko plan berria martxan jartzearekin batera, ekainetik irailera, udal-korporazio berriari, izendapeneko langileei eta administrazio-antolamendu berriari buruzko datuak sartu ziren. Txosten hau bukatzeko orduan, datuak eguneratuta daude, nahiz eta ohartarazpen hau egin beharreak gauden: **zuzendaritza-langileen curriculum vitaeak mantentzen** dira, zuzendari nagusi batenak eta udal enpresenak izan ezik, baina **oraindik ez da ematen lanpostu horietan jarduteko eskatzen den profilari buruzko informazioa**; horrek esan nahi du ez dela betetzen 2/2006 Legean ezarritako betebeharren parte bat baino. Plangintzari buruzko informazioaren arloan, **2019-2023 gobernu-programa eta dagokion kontu-ematea itxi dira, eta 2023-2027koa argitaratu da.**

Arlo juridikoko eta araudien arloko informazioa

15 informazio-item identifikatu ditugu, udal-araudiari, kontsulta-organoen txostenei, partaidetza-prozesuei eta abarri buruzko informazioarekin zerikusia dutenak.

63%

5/8 argitaratuta

27%

3/8 argitaratu gabe

2023an oraindik ez dira argitaratu item hauek: zuzenbidearen interpretazioa dakarten edo ondorio juridikoak dituzten udal-organoen erabakiak; Urteko Araugintza Plana eta arau-testuak egiteko dosierrak osatzen dituzten oroitidazki eta txostenak.

2023ko ekainetik, **ebazpen judizialak** Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren **Dokumentazio Judizialeko Zentroak** (CENDOJ) ematen duen aplikazioaren bidez eskaintzen dira.

Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa

Kudeaketa ekonomikoaren inguruko **16 informazio-item** bildu dira atal honetan (aurrekontuak, kontratuak, adierazle ekonomikoak, ordainsariak, hitzarmenak, inbentarioak...). **Datu irekiak** izan daitezkeen itemak dira.

81%

13/16 argitaratuta

19%

3/16 argitaratu gabe

6%

1/16 hobetu daiteke

Aurrekontu-informazioari buruzko atal honi dagokionez, nabarmendu behar da 2022tik OGP taldean parte hartzen ari garela, zeinaren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetarako **aurrekontu grafikoen plataforma** bat bateratzea. Abiapuntu gisa, azterketa sakon bat egin zen erabiltzaileekin, beharrak identifikatzeko, eta txosten hau idazteko unean plataforma-proposamen bat lantzen ari da. Foro horretan hartzen diren erabakien zain, Gasteizko Udalak eutsi egiten dio CIVIOrekin duen kontratuari.

Langileei buruzko informazioa

Langileei buruzko **4 informazio-item** espezifiko daude: enplegu-eskaintzei buruzko informazioa, ikastaroak eta prestakuntza, ordezkaritza sindikala eta lanpostuen zerrendak, eta hori da hobetu daitekeena.

100%

4/4 argitaratuta

25%

1/4 hobetu daiteke

Administrazio-antolakuntzari buruzko item guztiak eguneratuta daude: Administrazio-egiturari, langileei (lanpostuen zerrenda barne), antolaketa-dekretuei, ordezkaritza sindikalari eta besteri buruzko informazioa. Gainera, prestakuntzari, lanpostuen katalogoari, lan-eskaintza publikoei eta soldata-taulei buruzko informazioa ematen da. Aurreko txostenetan proposatutako hobekuntza egiteke dago, hau da, koadro sinoptiko argi bat gehitzea, lanpostuen zerrenda hobeto ulertu dadin.

Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa

Herritarrei hainbat esparrutan eskaintzen zaizkien zerbitzuen inguruko informazioa —kostua, ordutegiak, prezio publikoak...— eta zerbitzu-kartei buruzkoa emateko konpromisoa dakarten **4 informazio-item** identifikatu dira.

100%

4/4 argitaratuta

50%

2/4 hobetu daiteke

2022an, aurreko urteetako joerari eutsi zaio: kategoria horretako item guztiei zabalkundea eman zaie, baina, dagoen informazioa hobetze aldera, zerbitzuen karta edo katalogo bat sortzen aurrera egin beharko litzateke. Gainera, webgunean oraindik ez dago Udalaren kalitate-politikari buruzko informaziorik.

Beste zenbait alderdi

Kasu honetan, **5 informazio item** orokor adierazten dira, hauen inguruan: gardentasun-ataria, herritarrei arreta emateko kanalen zabalkundea, herritarrekiko harremanetarako espazio bat eta partaidetza-sistema bat izatea...

100%

5/5 argitaratuta

'Beste zenbait kontu' epigrafean jasotako itemak eguneratuta daude. Webgunea hobetzeko lana etengabea da, eta erabiltzeko erraztasun handiagoa emango duten hainbat proiektu ari dira garatzen aldi berean. Gainera, itxura garaikideagoa, lagunkoiagoa emango zaio.

Informazio publikoa eskuratzea

Jasotako eskaerak: 61

Eskabideak, sarrera-bidearen arabera: Aurrez aurrekoa (22) / Online (39)

Eskatzaileen sexua: Emakumeak 11/Gizonak 40/Entitateak 10

Eskabideen hizkuntza: Gaztelania (59) /Euskara (2)

Mugikortasuna eta garraioa (5), Bide publikoa (6), Ingurumen eta iraunkortasuna (9), Herritarrentzako informazioa eta laguntza (8), Herritarren parte-hartzea (6), Kirolak (1), Aisialdia eta kultur (3), Ogasuna (7), Ekonomia sustapena (10), Turismoa (5), Hirigintza - Etxebizitza (11), Osasuna eta kontsumoa (1), Hezkuntza (1), Herritarren segurtasuna (3), Prestakuntza eta enplegua (3), Berdintasuna, Integrazioa eta Lankidetzak (1)

Urtea amaitzean erantzun gabe daudenak: 3

2023an, 61 **eskaera jaso** dira; horietatik, 60 **erantzun** dira, eta 1 **ezetsi** egin da. Aurreko urteekin alderatuta, epe barruan emandako erantzunak 36 izan dira, baina kopuruak hobera egin behar du. Aurreko urteekin alderatuta, oso baliagarria izan da 2022az geroztik sailekin arlo horretako dosierren izapidetzea arintzeko egiten ari den lana.

2019-2023 legealdiko plana ekainean amaitu zen. Plan hark 6. ardatzeko —"Gobernantza, Kudeaketa hurbila, arduratsua eta irekia"— bi konpromiso izan ditu oinarri: Gardentasun Ataria hobetzea eta Datu Irekien Ataria zabaltzea.

Konpromiso horiek birformulatu behar izan dira, ez herritarrei ematen zaien informazioaren bolumena handitzeko, baizik eta informazio hori **eskuratze modua eta azalpenak hobetzeko; webgunearen diseinu berriari esker gauzatu ahal izan da hori, gobernu irekiaren eredu osatzen duten elementu guztiak erlazionatu baitira (gardentasuna, informazio-eskaerak, kontu-ematea, partaidetza...).**

Nabarmenezkoa da korporazio-aldaketarekin eguneratu egin zirela bi arlo hauei buruzko datu guztiak: egitura politikoa (karguak, curriculum vitae, izendapenak, etab.) eta administrazio-antolamendua (sailen egitura eta arduradunak).

Oro har, gobernu irekiko ekimenei dagokienez, honako **helburu hauei eutsiko zaie:**

Argitaratutako informazioaren kalitatea handitzea, eta ez kantitatea.

Ikus-entzunezko eduki edo eduki grafiko berriak gehitzea, gehienbat didaktikoak (tutoretza-bideoak).

Webguneko edukiak albisteen eta sare sozialen bidez argitaratzea, haien sustapena eta interesa errazteko.

Lehentasunezko zat jotzea edukiak komunikazio argiko parametroetara egokitzeko lanak. Horien oinarriak Estrella Montolíoarekin ezarri ziren, azaroan udal langileekin egindako lan-saio batean. Gardentasun aktiboaren alderdi kuantitatiboari dagokionez, azken urteotan bezala jarraitu da lan egiten; ez da hobekuntza kualitatiborik izan, hainbat item falta zaizkigulako, eta argitalpen-prozesuak automatizatzea zail gertatzen delako. Egoera hori bi ikuspuntu ezberdinetatik interpreta daiteke, nahitaez antagonikoak ez direnak, osagarriak baizik: alde batetik, uste dugu nolabaiteko heldutasun-maila lortu dela informazioa argitaratzeko eta zabaltzeko zenbait dinamikatan; bestetik, badirudi geldialdian gaudela, beste urte batzuetan detektatutako gabeziak errepikatzen ari baitira. Kuantitatiboki betetze-maila altua dela esan dezakegu, % 90era iristen ez bagara ere..